



IHOBEREN, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN, DEBEGESAREN ETA DEBA, EIBAR, ELGOIBAR, ERMUA, MALLABIA, MENDARO, MUTRIKU ETA SORALUZeko UDALen ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, DEBABARRENEKO UDALTALDE 21 PROIEKTUA EGITEKO ETA GARATZEKO: TOKIKO AGENDA 21 DISEINATZEKO FASEA.

Eibarren, 2002ko maiatzaren 30ean

BILDURIK

Sabin Intxaurre Mendibil jauna, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren menpe dagoen IHOBE, S.A. Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoko Presidentea, sozietatearen izenean eta ordezkartzan.

Jon Mikel Murua Uribe-Etxeberria jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuaren Foru Diputatua, Foru Aldundiaren izenean eta ordezkartzan.

Juan Angel Balbas jauna, DEBEGESA Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Elkarteko Gerentea, Elkartearen izenean eta ordezkartzan.

Jesus M. Agirrezabala Goltokia jauna, Debako Udaleko Alkatea, Udalaren izenean eta ordezkartzan.

Itaki Arriola Lopez jauna, Eibarko Udaleko Alkatea, Udalaren izenean eta ordezkartzan.

Guillermo Garate Urzelai jauna, Elgoibarko Udaleko Alkatea, Udalaren izenean eta ordezkartzan.

Carlos Totorika Izagirre jauna, Ermuko Udaleko Alkatea, Udalaren izenean eta ordezkartzan.

Jose Ramon Olalde Aguirregomezorta jauna, Mallabiko Udaleko alkatea, Udalaren izenean eta ordezkartzan.

Jose Domingo Zulaika Arakistain jauna, Mendaroko Udaleko alkatea, Udalaren izenean eta ordezkartzan.

Jose Agustin Elezgarai Flores jauna, Mutrikuko Udaleko alkatea, Udalaren izenean eta ordezkartzan.

Alberto Sudupe Oregi jauna, Soralezko Udaleko Alkatea, Udalaren izenean eta ordezkartzan.



sku hartzen dutenek, beren karguen funtzioak betez, esku hartzen duten eran bata besteari itzarmen hau sinatzeko ahalmen osoa aitortuz, eta eragina izan dezan:

ADIERAZTEN DUTE

ehena.- Rio de Janeiron (Brasil) 1992an egin zen Ingurumenari eta Garapenari buruzko azioarteko Konferentzian, Agenda 21 estrategia orokorraren baliabide gisa onartu zela, anetaren degradazioa geldiaraztea lortuko duen garapen jasangarriaren ereduarentzako gungarri izango diren ekonomia-, gizarte-, kultur eta ingurumen-politikak garatzeko arapen jasangarria sustatzeko jarduerak duten garrantzia kontuan hartuta, Agenda 21en 28. alak udal-administrazioen, hiritarren, gizarte-erakundeen eta enpresen arteko adostasunaren a horien arteko elkarrizketaren emaitza gisa Tokiko Agenda 21 ezartzeko deialdia egiten da.

ingurumen-arazo orokorrak konpontzeko giltzarriak leku eta denbora aldetik biderkatu zituen diren herri mailako jarduerak dira. Horregatik, EAEko udalerrietan Agenda 21 nartzea eta martxan jartzea Ingurumeneko Esparru Programa 2002-2020 delakoaren barruan definitzen ari den EAEko ingurumen-politikan lehentasuna duen helburu gisa definitu da.

igarren.- EAEko Ingurumena Babesteko Lege Orokorraren (otsailaren 27ko 3/1998 legea) helburuetako bat hiri-ingurumenaren jasangarritasuna bermatzea dela, eta hori ingurumen-irizpideak hiri-plangintzan eragingarritasunez integratuz eta ondare historikoa abestuz egin beharko litzatekeela. Horrez gain, 87. artikuluan dio toki-erakundeek udaleko ingurumen-ordenantzak onartu beharko dituztela. Hau da, hiri-ingurumenaren kudeaketan dalerriak geroz eta zeregin gehiago izan behar du.

irugarrena.- Tokiko Ingurumeneko Ekintza Planen barruan (Tokiko Agenda 21) udal-udeaketa garapen jasangarriaren printzipioetara egokitzeko ekimenak, programak eta strategiak sartu beharko direla. Garapen jasangarria, hain zuzen ere, hauxe da: beste gune eografiko batzuen edo etorkizuneko belaunaldien garatzeko gaitasuna arriskuan jarri gabe neko tokiko beharrak asebetetzea.

augarrena.- Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak 'Euskal autonomia Erkidegoko Udalerrietan Tokiko Agenda 21 Sustatzeko Programa 2000-2003' egin duela. Sail hori 'Ingurumeneko Esparru Programa 2002-2020' delakoan jasotako ingurumen-helburuak 'Tokiko Agenda 21 Sustatzeko Programaren' barruan pixkanaka hartzen joan daitezzen zaintzeaz arduratuko da, eta horretarako emaitzen segimendua egingo du. Sailak, IHOBE Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoaren bidez, sustapen publikoko estrategia martxan jarriko du, udalek behar dituzten tresnak lantzeko udal-eskaerak nitzemango ditu eta ingurumenarekin lotutako jarduera teknikoak koordinatuko ditu.



Bosgarrena.- Lurralde Historikoan garapen eramangarria lortzea baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren helburua, erakundeak eramangarritasunaren irizpideekin jokatu du bere ekintza guztietan. Beste aldetik, Tokiko Agenda 21 lantzeko prozesuen alde sarri askotan azaldu duen jarrerarekin bat eginez, konpromisoa hartzen du aipatu agendak egiteko udal erakundeek behar duten laguntza ingurumeneko politikagintzaren lan ildoetan sartzeko.

Seigarrena.- Debako (5.033 bizt.), Eibarko (29.747 bizt.), Elgoibarko (11.359 bizt.), Ermuko (17.769 bizt.), Mallabiko (1.110 bizt.), Mendaroko (1.373 bizt.), Mutrikuko (4.689 bizt.) eta Soraluzeko (4.675 bizt.) udalek uste dutela udaletako ingurumen-alderdi askori Tokiko Agenda 21en eredia kontuan hartuta kudeaketa bakarrarekin erantzun dakiekeela; Tokiko Agenda 21ek herri-ekimena izan behar du, eta, ondorioz, garapen jasangarria lortzeko plan eta ekintza zehatzak sortu behar dira.

Zazpigarrena.- DEBABARRENEKO UDALTALDE 21 proiektuaren helburu nagusia udalen arteko lan-taldea sortzea dela. Talde horrek, DEBEGESAren zuzendaritzapean eta Aldundiarekin eta IHOBErekin koordinatuta, Agenda 21 ezar dadin lan egingo du, eta, horretarako, parte hartuko duten udalei trebakuntza eta laguntza bateratua emango die.

Ondorioz, IHOBE Sozietate Publikoak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia, Mendaro, Mutriku eta Soraluzeko udalek eta DEBEGESAk, aurrekoarekin ados egonda, Lankidetzeta Hitzarmen hau sinatuko dute, ondorengoa kontuan hartuta

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN HELBURUA

Hitzarmen honen helburua Aldundiaren, IHOBEren, DEBEGESAren eta ondorengo udalen arteko harremana arautzea da:

- Deba,
- Eibar,
- Elgoibar,
- Ermua,
- Mallabia,
- Mendaro,
- Mutriku eta
- Soraluze.

DEBABARRENEKO UDALTALDE 21 proiektuaren barruan, Tokiko Agenda 21 prozesua udalerrri horietan ezartzeko.



BIGARRENA.- IHOBEK, ALDUNDIAK ETA DEBEGESAK HARTUTAKO KONPROMISOAK

Hitzarmen hau sinatzean, DEBEGESAK, ALDUNDIA eta IHOBEk konpromiso hauek hartzen dituzte:

IHOBE, Aldundia eta DEBEGESAK "Debabarreneko Udaltalde 21" proiektua koordinatu eta zuzenduko dute, Ingurumeneko Esparru Programa 2002-2020 delakoan aipatutako helburu estrategikoekin bat etorriz. Proiektuaren segimendua egiteko, DEBEGESAK dagoeneko sortuta dagoen Tokiko Agenda 21en Batzordean sartuko ditu IHOBE eta Aldundia eta aldian-aldian egingo diren bileretarako deia egingo die. Gainera, beharrezkoa dela uste denean, proiektuaren Zuzendaritzarako aipatutako aldean arteko bilerak egingo dira, zuzendaritza horren etorkizuneko jarduerak zuzentzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politikaren norabidean doazela ziurtatzeko.

IHOBE, Aldundia eta DEBEGESAK informazio-truke sistematikoa sustatuko dute Tokiko Agenda 21en inguruan (adierazleak, jardunbide egokiak, finantziazio-tresnak eta abar)

Beharrezkoa izanez gero, DEBEGESAK DEBABARRENEKO UDALTALDE 21 proiekturako asistentzia teknikoa emateko Aholkularitza kontratatzeko lehiaketa sustatu eta ebatziko du.

IHOBE eta Aldundiak DEBEGESARI edo eskatzen duten udalei gai honetan aditu diren pertsona/bekadunekin harremanetan jartzen lagunduko diete, udalean proiektua gauzatzear arduratzen den teknikariari laguntzeko eta Tokiko Agenda 21 udalean ezartzeko lanean jarduteko.

IHOBEk EAEren Ekobarometro Soziala proiektuaren barruko Debabarrena eskualdeko Ekobarometroa jakitera emango du, DEBABARRENEKO UDALTALDE 21 osatzen duten udalen ingurumen-sentsibilizazioa eta pertzepzioa zenbat aurreratu den hautemateko eta neurtzeko.

IHOBEk hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean DEBABARRENEKO UDALTALDE 21 osatzen duten udaletan eta horien instalazioetan egingo diren Ekoscanak finantzatuko ditu: 10.000 biztanle baino gehiagoko udaletan bi Ekoscan gehienez eta gainerako udaletan Ekoscan bat gehienez.

IHOBE eta Aldundiak Tokiko Agenda 21en inguruan egingo diren aurrerapenak komunika/heda daitezen sustatuko dute. Hitzarmen honen inguruan egingo diren komunikazioetan, Debabarreneko Udaltalde 21 erreferentzia jarriko da.

IHOBEk interneten, www.udaltalde21.net domeinuaren bidez, Debabarrena eskualdeko udalen Tokiko Agenda 21en orria koordinatu eta egunean izango du.



DEBEGESAK DEBABARRENEKO UDALTALDE 21 osatzen duten udalen diru-ekarpenak bilduko eta bideratuko ditu, baita Hitzarmen hau oinarri hartuta IHOBek eta Aldundiak egingo dituzten ekarpenak ere.

Hitzarmen honetan Eranskin gisa dauden Urteko Kudeaketa Planen ondoriozko finantziazioa honela banatuko da:

- ❖ Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak, IHOBE Sozietatearen bidez, %50 emango du.
- ❖ Gipuzkoako Foru Aldundiak % 30 emango du.
- ❖ Proiektuan parte hartuko duten udalek gainerako % 20 emango dute.

Urteko Kudeaketa Plan bakoitzak 100.000 €-ko kostua izango du gehienez (BEZa kanpo). Hitzartutako diru zenbatekoen ordainketak DEBEGESAREN bidez egingo dira, modu honetan: Kudeaketa Planak sinatzeko garaian, hasierako ordainketa finkatzen da (urteko Kudeaketa Plan bakoitzean finkatutako guztizko kantitatearen % 40) eta azken ordainketa abenduan egingo da (guztizkoaren % 60). Azken ordainketa egin aurretik, guztira egindako gastuak justifikatzeko txostena egingo du Debegesak. Urteko Kudeaketa Planean jasotako jarduerak osorik burutu ondoren dagokien gastua zuzitzen denean, planaren likidazioa egin eta parte hartzaileei aurkeztuko zaie, onar dezaten. Gastu osoa ez bada iristen Kudeaketa Planean jarritako kopurura, soberakinari buruz parte hartzaileek erabaki dezakete edo parte hartzaileen artean banatzea bakoitzak duen partaidetza ehunekoaren arabera, edo beren artean adostu ondoren beste jarduera osagarritan erabiltzea.

HIRUGARRENA. PARTE HARTUKO DUTEN UDALEN KONPROMISOAK

Hitzarmen hau sinatuta, Udalek konpromiso hauek hartuko dituzte:

Aurreko klausulan finkatutako diru-ekarpena (% 20) finantzatu. Ekarpen hori Hitzarmen honen seigarren azalpenean adierazitako biztanle-kopuruaren arabera izango da. Hitzarmen honen esparruan finantzatzen diren lanek egun indarrean dagoen arautegia bete beharko dute; beraz, proiektu berak ezingo ditu diru-laguntzak hainbat iturritatik jaso.

Tokiko Agenda 21 ezartzea beren gain hartu, udalen konpromiso politiko eta etengabeko hobekuntza gisa eta udalerriarren garapen jasangarriari egin beharreko ekarpen gisa.

Proiektu hau garatzeko aktiboki parte hartu, eta UDALTALDE 21 taldeentzako finkatutako metodologia egin, programa eta erabil dadin lagundu.



LAUGARRENA.- HITZARMENAREN IRAUPENA

Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean eta 2003ko abenduaren 31 arte iraungo du; alderdiak ados jarri eta idatziz hala adieraziz gero, automatikoki luzatu ahal izango da iraupena.

Urtean behin, abenduan, ondorengo ekitaldian aldeek onartu eta kofinantzatu beharreko jarduerak finkatuko dira. Onartu ondoren hitzarmen honi erantsiko zaizkio, eranskin gisa.

Hitzarmen hau sinatu duten alderdiek bertan behera utz dezakete, baldin eta 3 hilabete lehenago jakinarazten badiote beste alderdiari, betiere, gauzatzen ari diren eragiketa guztiak amaitu ondoren.

BOSGARRENA. KONFIDENTZIALTASUNA

Hitzarmen honen babesean garatutako proiektu guztietan eskuratu den eta publikatu nahi den informazio guztia adostu egin beharko dute alderdiek, abenduaren 12ko 38/1995 Legeak araututako Ingurumenaren alorreko informazioa eskuratzeko eskubideari kalterik egin gabe.

SEIGARRENA. HITZARMENAREN SEGIMENDUA

DEBABARRENEKO UDALTALDE 21en Zuzendaritza Batzordeak urtean behin egingo du bilera Hitzarmenaren segimendua egiteko. Zuzendaritza Batzordea honako hauek osatuko dute: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaria, IHOBeko Zuzendari Nagusia eta parte hartuko duten Udaletako Alkateak edo alkateek izendatutako ordezkariak. Bileretan, proiektuan egindako aurrerapenen deskribapen eta balorazio laburra egingo dute aldeek, eta hurrengo urterako helburuak finkatuko dituzte.

ZAZPIGARRENA. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Hitzarmen honen interpretazioan sor daitezkeen auziak ebazteko, aldeek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren jurisdikzio eskuduna kontuan hartzea erabaki dute.

Eta ados daudela egiaztatzeko, hitzarmen honen lau kopia sinatuko dituzte, goian aipatutako lekuan eta egunean.



1. eranskina: Debabarreneko Udaltalde 21, lankidetzaren hitzarmena

2002 kudeaketa plana

Eibarren, 2002ko maiatzaren 30 ean

Debabarreneko Udaltalde 21 proiektua eratu eta garatzeko lankidetzaren hitzarmena dela eta, behean sinatzen duten ondorengo kudeaketa plana onartu dute 2002. ekitaldirako (prezioetan ez da BEZa sartuta):

JARDUERAK	AURREIKUSITAKO GASTUAK
1. Diagnostikoa argitaratzea	12.020 €
2. Irakasleentzako ingurumeneko agenda	21.035 €
3. Ikastetxeetako kanpaina	3.005 €
4. Eko astea	21.035 €
5. Kontsumitzaileen gida	3.005 €
6. Anokularitza erria (parte hartzea, komunikazio plana, anokularitza)	21.035 €
7. Komunikazio Planeko edukiak	4.507 €
8. Elgolbarko harrobia berreskuratzeko ekintzak (bisita gidatuak, plana idaztea,..)	6010 €
9. Debako hondartzetan ISO 14.001 ezartzea	6010 €
10. Beste batzuk (Bidegorriak, ...)	2.338 €
GUZTIRA	100.000€